



2013KO IRAILAREN 20KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko irailaren hogeian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onspenera aurkeztzen da 2013ko irailaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 50 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA BI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (82.331,44 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 13-02-04 zbk.dun esped.: zerbitzua jartzea astelehenetik larunbatera, egunean bi orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da. Zerbitzua uztailearen 29an hasi da.
- 11-11-03 zbk.dun esperd.: zerbitzua murriztea astean 6 orduetik 2 ordura, eguneko zentrorra joaten hasi delako.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 13-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako kopurua aldatzea hilean 250€ izatetik 152,5€ izatera eta etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako laguntza aldatzea hilean 46,25€ izatetik 14,11€ izatera, uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %61 da.



- 13-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimentu gastuetarako laguntzatik baja ematea irailetik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 13-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenturako gastuetarako hilean 45,33 €ko dirulaguntza ematea abuztutik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 13-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenturako gastuetarako hilean 125 €ko dirulaguntza ematea irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako kopurua aldatzea hilean 178,5€ izatetik 125€ izatera eta etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako laguntza aldatzea hilean 27,75€ izatetik 23,12€ izatera, irailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Elbarrituen garraioa.-

- 13-17-01 zbk.dun esped.: Ordiziako Gureak tailerrera joateko garria ordaintzeko 2013. urterako 400,51 €ko dirulaguntza ematea, hilean 36,41 € dira abuztuan izan ezik.
- 13-17-02 zbk.dun esped.: Ordiziako Gureak tailerrera joateko garria ordaintzeko 2013. urterako 400,51 €ko dirulaguntza ematea, hilean 36,41 € dira abuztuan izan ezik.
- 13-17-03 zbk.dun esped.: Ordiziako Gureak tailerrera joateko garria ordaintzeko 2013. urterako 400,51 €ko dirulaguntza ematea, hilean 36,41 € dira abuztuan izan ezik.
- 13-17-04 zbk.dun esped.: Ordiziako Gureak tailerrera joateko garria ordaintzeko 2013. urterako 400,51 €ko dirulaguntza ematea, hilean 36,41 € dira abuztuan izan ezik.

Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programa.-

2013 urteko Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programan egon diren eskaerak aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondorengo dirulaguntzak onartzea erabakitzen du:

<u>ESKATZAILEA</u>	<u>PROIEKTUA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Mundu solidarioa helburu	Gaitasun urriak dituzten gazteen integrazioa (Nikaragua)	11.000,00 €
Herriak elkarlanean	Barnetegia eraikitzea Beninen	16.900,00 €
Felix Baltistan Fundazioa	Kalitatezko eta Ekitatezko Heziketa jasotzeko eskubidea (Pakistan)	2.800,00 €



Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Giharako (Rwanda) eskolan bigarren hezkuntzako bi gela berri eta komunak berri-tzea.	11.000,00 €
Lankidetzarako ingenieritza	Ur putzua eraikitzea (Etiopia)	6.300,00 €
Asociación Médico Humanitaria ROKPA	Nomadentzat osasun eskubidea (Etiopia)	4.000,00 €

IV.- MULTIFUNTZIO EKIPOAK KONTRATATZEKO TXOSTENA .-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2012ko azaroaren 28ko foru aginduaren bitartez, SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA S.L. (IFZ.: B20719696) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "funtzio anitzeko ekipoen horniketa eta mantenua zerbitzua" emateko esparru akordioa (X12008) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluaekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko uztailaren 16an emandako txostenaren arabera proposatu du "funtzio anitzeko ekipoen horniketa eta mantenua zerbitzua" emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SISTEMAS DE OFICINA DE GIPUZKOA S.L. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez funtzio anitzeko ekipoen horniketa eta mantenua zerbitzua" emateko eratorritako kontratua (X12008) SISTEMAS DE OFICINA S.L. enpresari (IFZ.:B20719696) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

